



GIDA ESKAERA BETETZEKO ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO (ON-LINE)

Hezkuntza Sailak aplikazio bat sortu du, ordezko gaiak on-line izena emateko ireki diren zerrendetan.

APLIKAZIORA SARTZEKO ERA

<https://hezigunea.euskadi.eus/eu>

 hezigunea

Saioa hasi

Hauek nabarmentzen ditugu



Hauteskunde sindikalak.
2023ko urtarrila -
2023ko martxoa



EPE 2022.
Hezkuntza.
Egonkortzeko hautaketa-
prozesuak eta ohiko hautaketa-
prozesuak.

Zure erabiltzailearekin identifikatu

Saioa hasi


NAN/AIZ


Kontuari esleitutako pasahitza

Sarrera

[Izen-ematea](#)

[Pasahitza ahaztu duzu](#)


XLNETS bidezko sarbidea
[XLNets erabiltzailearekin identifikatu](#)
[zaitezke hemen sakatuta](#)


Giltza bidezko sarbidea
[Giltzarekin identifikatu zaitezke hemen](#)
[sakatuta](#)

Laguntza behar al duzu? hezigunea@hezkuntza.net

Zalantzarik bai? [Gida kontsulta dezakezu](#)

Pasahitza baduzu, hasi saioa NANA (letraz) eta pasahitza sartuz.

Pasahitzik ez baduzu, atarian identifikatzeko, jo ezazu “Gida kontsulta dezakezu” (2.1 eta 2.2 atalak)

Pasahitza gogoratzen ez baduzu, klikatu "Pasahitza ahaztu duzu" botoian. Berreskuratzeko zalantzak badaukazu, jo ezazu “Plataforma ezagutu” (2.3 atala).

2 Atarian sartzeko identifikazioa eta erregistroa	6
2.1 Atarian erregistratzea	7
2.2 Identifikazioa Atarian	8
2.3 Berreskuratu pasahitza	11

Behar bezala identifikatu ondoren, hurrengo pantaila agertuko da, eta «Eremu pertsonala» klikatu beharko duzu:



Atal hori zabalduz gero, honako aukera hauek aurkituko dituzu, eta "Izapideak langileen sailarekin" klikatu beharko duzu:



Hori egitean, eskuinean atal hau agertuko zaizu:

Administrazio-izapideak

Epigrafe honen azpian ikono hau hautatu beharko duzu:



Zerrenda-irekiera

Ondoren, aplikazioak honako pantaila hau erakutsiko dizu eta "Eskaera-aldi irekia dutenak (ESKABIDEA)" klikatu beharko duzu

- ▶ [Irekita mantentzen diren zerrendak \(Eskaerak onartzen dira sarreragatiko antolamenduz abisu berrira arte\)](#)
 - ▶ [Ebazpena, 2021ko abuztuaren 31 - Irakasleak](#)
 - ▶ [Ebazpena, 2021ko abuztuaren 31 - Hezkuntza Bereziko irakasle ez diren langileak](#)
 - ▶ [III. Eranskina \(titulazioen eta espezialitateen taula\) - Irakasleak](#)
 - ▶ [III. Eranskina \(Hezkuntza bereziko irakasleak ez diren langileeen hitzamen kolektiboa\)](#)
 - ▶ [ESKABIDEA](#)
- ▶ [Zerrenda-Irekitze Berriak](#)
 - ▶ [Eskaera-aldi irekia dutenak \(ESKABIDEA\)](#)
 - ▶ [Eskaera-aldi itxia dutenak \(Prozesuaren Segimendua\)](#)



Eskaeran zehar batzuetan eremuak tekleatuz beteko dira, beste batzuetan desplegatzen den menuaren bidez, eta beste batzuetan taulan klik egin beharko da. Horrela markatuta geratuko da (desmarkatzen da, taulan berriro klik eginez).

Botoiak "Hurrengoa" botoiak eskabidean aurrera egitea ahalbidetuko dizu, berau burutu arte; "Aurrekoa" botoiak atzera egiteko da, zure eskabidean nahi dituzun aldaketak egin ditzazun.



Lehen urratsa: “Identifikazio-datuak”

[Pausua 1](#) Identifikazio-datuak »
 [Pausua 2](#) Zerrendak »
 [Pausua 3](#) Prestakuntza akademikoa

Aldez aurretik, markatu onespén eta zinpeko deklarazioen laukiak

Helbidea: (*)Herria: (*)Lurralde Historikoa:

(*)Udalerrria: (*)Postal Kopea:

1. telefonoa: 2. telefonoa: 3. telefonoa: 4. telefonoa:

Helbide elektronikoa:

(*)Sexua: EMAKUMEZKOA GIZONEZKOA (*)Jaiotze-data: (*)Nazionalitatea:

(*)Esan zein lurraldetan aurkeztuko duzun dokumentazioa:

BAIMENAK HEZKUNTZA SAILARI

Ondorengo datuak kontsultatzeko:

- Nortasuna (NAN, AIZ, beste batzuk) Baimena ematen dut Ez dut baimenik ematen
- Sexu delituak (urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoko 13.5 art.) Baimena ematen dut Ez dut baimenik ematen
- Euskera Salbuestea (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuko 2. art.):
 - Baimena ematen diot Hezkuntza Sailari Euskarazko C1 eta/edo C2 salbuespenari buruzko datuak kontsultatzeko, Euskal Herriko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean eta Deustuko Unibertsitatean.
 - Ez dut baimenik ematen
 - Ez nago Euskara salbuespena egoeran.

ZINPEKO AITORPENA

Ondoko zinpeko aitortpena EGITEN DUT: Inongo administrazio publikotik ez nautela zigor-espediente baten ondorioz egotzi eta ez nagoela herri-jarduerarako ezgaituta.

PRIBATUTASUNA

Eskatzaileak berariaz baimena ematen du bere datu pertsonalak deialdiaren oinarrietan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko aginduan adierazitako moduan eta helburuarekin lantzeko.

Derrigorrezko identifikazio-datuak, baimenak Hezkuntzako Sailari, zinpeko aitortpena eta zure datu pertsonalak erabiltzeko baimena bete arte, aplikazioak ez dizu utziko hurrengo urratsera pasatzen.

Datu guztiak bete ondoren “Hurrengoa” botoia sakatu; horrela zure identifikazio-datuak gordeko dira eta jarraitu ahal izango duzu.

Bigarren urratsa: “zerrendak”

Bete itzazu ordezkapenak egiteko aukerak bete (hirueletasun aukera, ordezkapenak egin nahi dituzun lurraldeak eta lanaldi mota) eta irekita dauden zerrenda guztietatik ordezkapenak egin nahi dituzun horiek selekziona itzazu :

Euskara
Irakasteko HE: 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hirueletasuna
INGELESA: FRANTSESA:

Lurraldeak
 ARABA GIPUZKOA BIZKAIA

2tik 2 elementu

Maila	Irakasgaia
<input type="checkbox"/> 20 - IRAKASKUNTZA ERTAINAK	0106 - EUSKARA ETA EUSKAL LITERATURA
<input type="checkbox"/> 20 - IRAKASKUNTZA ERTAINAK	0327 - GORPUTZ HEZKUNTZA

Aurrekoa Hurrengoa

Zerrendak aukeratu eta gero “Hurrengoa” botoia sakatu behar duzu.

Hirugarren urratsa: **“Prestakuntza akademikoa”**

OHAR GARRANTZITSUA: Hirugarren urrats honetan pantailan zure titulu/ziurtagiri guztiak agertzen direla ikusten baduzu (jada Hezkuntza Saileko Ordezkapenetarako izangaien beste zerrenda batean izena eman duzulako) ez dituzu berriaz zerrendatu beharko, ezta berriro atxiki ere. “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” botoian egin beharko duzu klik. Horretarako jarrai itzazu gida honetako 8. orrialdeko argibideak.

“Prestakuntza akademikoa” atxikitzeko jarrai itzazu hurrengo pauso hauek:

Pausua 1 Identifikazio-datuak » Pausua 2 Zerrendak » Pausua 3 Prestakuntza akademikoa

Zerrendan sartu ahal izateko tituluak, eta barematu beharreko beste titulu batzuk (titulu akademikoak, hizkuntzetakoak, master ofizialak, prestakuntza pedagogiko eta didaktikakoak) Alegatutako tituluak

Elementu barik


Titulua	Emate-data	Zrt. Akad.

Berria | Editatu | Ezabatu

Aurrekoa Eskabidea amaitu eta agiria sortu

Zure titulua agertzeko, “Berria”n klik egin ezazu eta aplikazioak ondorengo pantaila eskainiko dizu. Horretan, zuk izena eman nahi duzun espezialitatea irakatsi ahal izateko exijitutako tituluak/ziurtagiriak zehaztu ditzazun ¹.

Mesedez, titulua/ziurtagiria tekleatzen duzunean, zure titulu ofizialean/ziurtagirian agertzen den izen osoa teklea ezazu. Pantaila honen datuak betetzen bukatzean, atxikitu zure titulua/ziurtagiria “Atxikitu titulua” atalean.



Pausua 1 Identifikazio-datuak » Pausua 2 Zerrendak » Pausua 3 Prestakuntza akademikoa

Baldintzak zerrendetan sartzeko (titulu akademikoak, hizkuntzak eta, hala badagokio, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa)

(*)Titulua:
LICENCIATURA EN DERECHO

Titulua ematen duen erakundea:

(*)Emate-data: 1993/02/04


Ziurtagiri akademikoa:
Batez besteko nota: 9.0000

Atxikitu titulua

Gorde Itzuli

Aurrekoa Eskabidea amaitu eta agiria sortu

“Atxikitu titulua” atalean honako pantaila agertuko da:



Dokumentazioa gehitu

Dokumentazioa: Prestakuntza akademikoa

Zerrenda Xehetasuna

Elementu barik

Dokumentua

Eqoera

Berria | Editatu | Ezabatu

“Berria” botoia sakatu behar duzu, eta ondoren “Aztertu” botoia, zehaztutako titulua/ziurtagiriaren egiaztageria eskaneatuta atxikitzeko, pdf formatuan (gaineratu beharreko fitxategi bakoitzaren tamaina ezin da 3 MBtik gorakoa izan).

¹ ***Informazio-oharra:** espezialitate bat emateko zein tituluk trebatzen duten kontsultatu nahi izanez gero, ordezkapenak egiteko ordezkogaien indarreko legeriaren (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko agindua) titulazio eta espezialitateen taulei buruzko III. eranskinean argitaratutako emandako informazioa sartuz egin dezakezu kontsulta. Informazio hori Sailaren web orrian: Lan-arloak / Langileak / Hornikuntza- Irakasleak /Ordezkapenak egiteko ordezkogaiak-indarreko legeria atalean, egin dezakezu kontsulta; edo lokarri zuzen honetan: <http://www.euskadi.eus/langile-irakasle-ordezkapenak-arauak/web01-a3holair/eu/>

Dokumentazioa gehitu

Berria: Prestakuntza akademikoa Zerrenda Xehetasuna

Artxiboa: Azertu...

Egoera: Baliozkotu gabe ▼

Gorde Itzuli

Atxikitu behar dituzun titulu/ziurtagiri (baldintzak) bezainbat lerro bete behar dituzu. Titulu/ziurtagiria bakoitza atxikitu behar duzu tituluaren/ziurtagiriaren izena deskribatu duzun lerroaren ondoan.

Amaitzeko, “Gorde” botoian klik egin ezazu, aplikazioak datuak eta zure tituluen/ziurtagiriaren dokumentazioa gorde ditzan. Grabatu dituzun datuak ondoren adierazten den eran agertuko direla ikusiko duzu:

Pausua 1 Identifikazio-datuak » Pausua 2 Zerrendak » Pausua 3 Prestakuntza akademikoa

Baldintzak zerrendetan sartzeko (titulu akademikoak, hizkuntzak eta, hala badagokio, prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa) Titulua

2tik 2 elementu 1-tik 1

Titulua	Emate-data	Zrt. Akad.
LICENCIATURA EN DERECHO	1993/02/04	9.0000
OHO IRAKASLEA. INGELES FILOLOGIA	2013/02/04	7.0000

Berria | Editatu | Ezabatu

Aurrekoa Eskabidea amaitu eta agiria sortu

Pantaila honetatik botoiek aukera hauek eskaintzen dizkizute:

- “Berria”: titulu berri bat altan ematea.
- “Editatu”: selekzionatuta dagoen titulura (fondo urdinean) itzuli eta aldaketak egin ahal izatea.
- “Ezabatu” selekzionatuta dagoen titulua (fondo urdinean). Kasu honetan

aplikazioak hau galdetuko dizu:

Ezabatu

Aukeratutako erregistroak ezabatu nahi dituzu?

Ezabatu Ezeztatu

ESKABIDEA AMAITU ETA AGIRIA SORTU

Aurkeztuko dituzun tituluei alta eman ondoren (**titulu ofizialak bakarrik**, ez aipatu edo aurkeztu kurtsorik, ez direlako baloratzen), “Eskabidea amaitu eta agiria sortu” botoia sakatu, eskabidea ongi balidatuta eta erregistratuta gera dadin.

The screenshot shows a web application interface with three tabs: 'Pausua 1 Identifikazio-datuak', 'Pausua 2 Zerrendak', and 'Pausua 3 Prestakuntza akademikoa'. The main content area is titled 'Zerrendan sartu ahal izateko tituluak, eta barematu beharreko beste titulu batzuk (titulu akademikoak, hizkuntzetakoak, master ofizialak, prestakuntza pedagogiko eta didaktikakoak)'. Below this is a table with one row of data:

Titulua	Emate-data	Zrt. Akad.
LICENCIADO EN DERECHO	2000/03/15	7.0000

At the bottom right of the table area, there is a button labeled 'Eskabidea amaitu eta agiria sortu'. A red arrow points from the text above to this button.

“Eskabidea amaitu eta agiria sortu” sakatuz ez baduzu eskabidea ixten, eskabidea ez aurkeztutzat joko da.

“Eskabidea amaitu eta agiria sortu” botoia sakatzean, ondoko ohar hau aterako da, zure eskabidea bukatu duzula eta itxi nahi duzula egiaztatzeko.

The notification message (Oharra) contains the following text:

Onartzen baduzu, zure ON LINE eskabidea itxiko duzu. Epe barruan edozein aldaketa egiteko, Hezigunea plataforman eskatu ahal izango da, Tramitagune Hezkuntza atalean sartuz..

At the bottom right of the notification box, there are two buttons: 'Onartu' and 'Ezeztatu'.

Zure eskabidean aldaketaren bat egin nahi baduzu, sakatu “Ezeztatu” eta aterako zaizun pantailan “Aurrekoa” botoia sakatuz aldatu nahi duzun urratsera joango zara (1. Urratsa, identifikazio-datuak; 2. Urratsa, zerrendak).

Eskabidea bukatu baduzu, sakatu “Onartu” eta eskaeraren gordekina eskuratuko duzu.

Aplikaziotik ateratzeko, atearen ikonoa selekziona ezazu, pantailaren goiko aldearen eskuinean.

Aplikazioan berriro sartzen bazara, aldaketak on-line egiterik izango ez baduzu ere, aukera izango duzu zure eskabidearen gordekina inprimatzeko.